Zurriolako Ataria

178. alea 2022-06-03

Goizeko jarduna



Udako oporrak iristear daude, eta ekainaren 13tik 21era goizeko jarduna izango dugu HH eta LHko etapetan, ikasturteari amaiera emateko. Egun horietan antolakuntza berezi izango dugu ordutegiei dagokienean. Zirkular honetan duzue informazio guztia.

Egutegia 22/23

Hezkuntza Sailak hurrengo ikasturteko egutegia antolatzeko baldintzak jakinarazi ditu dagoeneko, eta aukera eta proposamenak aztertu ondoren, egutegia onartu dute Ikastolako Zuzendaritza Taldeak eta Eskola Kontseiluak. Hauxe izango dugu, beraz, 22/23 ikasturteko egutegia.

22/23 Zerbitzuetan izen-ematea

Gaur hasi eta ekainaren 11ra bitartean, irekita duzue hurrengo ikasturteko zerbitzuetan izena emateko epea. Etapa bakoitzeko zirkularrean aurkituko dituzue informazio eta zehaztasun guztiak, baita izen-emateko galdetegiak ere.

Mugikorraren erosketa atzeratzeko prest!

Teknoiz taldean mugikorra erosteko adina atzeratzeko bidea urratsez urrats egingo dugu, eta jada lehen konpromisoa hartu dugu: gure seme-alabei mugikorra datorren irailera arte behintzat ez erostea. LH4, 5 eta 6ko gurasoak animatu nahi ditugu konpromisoarekin bat egitera, galdetegi hau betez. Zirkularra.

Ikastolaren Eguna

Bi urteren ondoren, Ikastolaren Eguna ospatu genuen larunbatean berriro ere, eta egun ederra igaro genuen festa-giroan! Eskerrik asko antolatzaile guztiei, lan ederra egin zenuten guztiok gozatu ahal izateko! Eta zorionak ikuskizunetan parte hartu zenuten guztioi! Hurrengo urtean gehiago!

Txikienak naturaz gozatzen

Pasa den asteazkenean, 2 urtekoak Uliako Lore Baratzetan izan ginen. Primeran pasa genuen hondarrarekin jolasten, laberinto naturalean eta egurrez egindako oreka zirkuituan. Naturgune zoragarria da!!

Ikasturte amaierako irteerak

Ikasturteari amaiera emateko, LHkook hiru egunetako irteerak egin ditugu azken asteetan. Barria, Arantza, Zugarramurdi, Lizarra, Allo eta Zuhatzan ibili gara, elkarrekin gozatuz eta paraje bakoitzak eskaintzen dizkigun jarduerak eginez. Uda-giroa estreinatzeko modu ona!

Mihiluze DBHn

Gaur hasi da Mihiluze lehiaketa DBHko ikasleen artean. Oso giro polita sortu da kahoot bidez egindako norgehiagokaren lehen fase honetan. Ikasleen Euskara Batzordeko kideak izan dira antolatzaile, eta binaka jarrita euskal kulturaren inguruko galderei aurre egin behar izan diete DBHko gela guztietan. Datorren astean bigarren fasea jokatuko da, eta final handia ekainaren 17an!!

Guraso ordezkarien bilera

Iaz guraso ordezkarien funtzioaren inguruko hausnarketa egin genuen, funtzioak, harremana eta komunikazio-bideak aztertu eta zehazteko. Aurten, hausnarketa horretan oinarriturik, Guraso Ordezkarien Taldea lanean aritu da, eta pasa den astelehenean egin genuen ikasturte honetako azken bilera. Hurrengo ordezkariei transmisioa egitea falta dute, aurtengo lanari amaiera emateko. Eskerrik asko lanean aritu zareten guztioi!

Kategoriako hanburguesak!

Ikastolako jangelara hanburgesak eta salbixbak hornitzen dizkigun Otar Goxo harategiak Gipuzkoako Egile Hanburgesen 1. saria jaso zuen maiatzaren 28an Elbarren egin zen txapelketan. Dominadun hanburgesak izango dituzte ikasleek aurrerantzean beren plateretan!

OHARRAK / AGENDA:

- **HH4A eta B:** Ulia. Egunpasa. Ekainak 7. Zirkularra.
- **LH1:** Ametzagaina. Egunpasa. Ekainak 6.
- **LH2:** Ametzagaina. Egunpasa. Ekainak 9.
- **LH3:** Ulia. Egunpasa. Ekainak 9.
- **LH3:** Ziklo-bukaerako guraso bilera orokorra. Ekainak 6. 16:45. Geletan.
- **LH6:** Ziklo-bukaerako eta DBHren aurkezpeneko guraso bilera orokorra. Ekainak 7. 16:45. Jangelan.
- **LH5:** Bazkari osasuntsua geletan. Ekainak 8.
- **DBH:** Errekuperazioak. Ekainak 6, 7 eta 8.
- **DBH:** Errekuperazioen emaitzak Alexian. Ekainak 10.
- **DBH1, 2 eta 4:** Inguruko naturguneen garbiketa. Ekainak 9.
- **BATX:** Aparteko deialdiko azterketak. Ekainak 9-15.
- **BATX2:** Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa. Ekainak 8, 9 eta 10.
- **Liburu eskaera 22/23:** LH, DBH eta BATX. Ikasmaila guztiak.
- **Zerbitzuak 22/23:** Izen-ematea.
- **Zurriola Musika eta Dantza Eskola:** ikasturte amaierako emanaldiak.
- **Zurriola Antzerki Eskola:** Ekaineko emanaldiak.
- **Zurrimendi:** Ekaineko irteera. Ekainak 12.
- **Udako egonaldiak:** Zirkularra.
- **Udaleko Euskara zerbitzua:** 16-18 urte bitarteko gazteentzako euskara ikastaroak urtailean.
- **Donostia gateria:** Familiarekin jolasean. Ekaineko programazioa.
- **Parketarrak:** Egunik onenak elkarrekin euskaraz jolasean. Orokorra. Auzoan.

@zurriolartetarte

itzuli

ZURRIOLA IKASTOLA IKE
Indianoene, 1 - 20013 Donostia.
943 272 587